



## ETXALARKO UDALA

Andulzeta, 15 - 2. solairua - 31780 ETXALAR (Nafarroa)  
Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232  
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

### BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA GOROSPIL, BAXTAN BORDA ETA ETXABURU ALDERDIETAN BASO-APROBETXAMENDUA ESLEITZEKO

#### 1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea honako baso-aprobetxamenduen kontratua arautuko duen baldintza administratiboak zehaztea da: Etxalarko udaleko hermendia, 443, 444 eta 445 mendiak; mendi horiek Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartuta daude. Aprobetxamenduak honakoak dira:

Lotea	Alderdia	Mota	Unada	Mozketa	Zura	Egur txikia	Bol. osot.
1	Arrizabaleta Artzamena Ezkututza Galardi Hirusasi Nabarroia Salañetako borda Unanegi	P. nigra (Larizio) L. kaempferi (Alertze)	6b, 85ef, 15f, 13d, 26hg, 84ifg, 19f, 20e, 67b, 18e, 83f	Bakantzea	322,06 m <sup>3</sup>	2.317,97 m <sup>3</sup>	2.640,03 m <sup>3</sup>
2	Gorospil Lurrizti Otsobi Zimitzu	P. radiata (Intsignis pinua) C. Lawsoniana (Lawson altzifrea) P. nigra (Larizio) L. kaempferi (Alertze)	94a, 3f, 5c, 28bf, 47ac	Erabat Haizeak botatakoak	895,42 m <sup>3</sup>	383,75 m <sup>3</sup>	1.279,17 m <sup>3</sup>
3	Hirusasi Altxata Arrakoitz Olazarra Zimeldiko erreka	Q.rubra (Amerikano), Castanea sp (Gaztainondoa), R.pseudoacacia (Akazia), P.hybrida (Platano), F.sylvatica (Pagoa), F.excelsior (Lizarra), P.avium (Gerezia), A.pseudoplatanus (Astigarra), C.lawsoniana (Lawson)	25bd, 26hg, 42a, 55c, 56b, 94gh, 1d, 4defg, 5cfi	Erabat Bakantzea	2.598,71 m <sup>3</sup>	1.014,35 m <sup>3</sup>	3.613,07 m <sup>3</sup>

#### 2. KONTRATUAREN ZENBATEKOA

1. Lotea: 24.340,83 € (BEZ kanpo)
2. Lotea: 25.455,57 € (BEZ kanpo)
3. Lotea: 88.914,90 € (BEZ kanpo)

#### 3. LANAK BURUTZEKO EPEA

Burutzapen epea URTEBETEKoa izanen da, esleipenaren datatik aurrera.

#### 4. FIDANTZAK

##### A) BEHIN BEHINEKO FIDANTZA:

Lizitazioan parte hartzeko, lotearen hasierako balioaren %2ko fidantza aurkeztu beharko da. Behin behineko fidantza hori Etxalarko udalaren aldekoa izanen da eta eskudirutan, banku-abalaren bidez, txeke adostuaren bidez edota indarrean dagoen legediak aurreikusitako bertze moduren batean.

Fidantza hau aprobetxamenduaren esleipena lortzen ez duten pertsona edo entitateei itzuliko zaie.

##### B) BEHIN BETIKO FIDANTZA:

Lotearen balioaren % 50eko fidantza ezarriko da aprobetxamenduaren burutzapen egokiaz eta erauzketa-bideetan (orokorrean zein egurra ateratzekoetan) eragin daitezkeen kalteez arduratzeko.

Esleitzeko proposamena lizitatuzailearen alde egin eta honek ez badu betetzen agiriak ekartzeko betebeharra, Administrazio publikoekin kontratazeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen dituztenak, behin behineko fidantza kenduko da.

Aprobetxamenduaren burutzapen egokia bermatzeko ezarritako fidantza, azken onarpenaren akta sinatzerakoan itzuliko da kalterik ikusi ez dela azaltzen bada, edo kalte horiek konpondu badira. Esleipendunak konpon ditzakeen kalteak honako hauek dire: pista nagusietan eta bigarren mailako pistetan sortzen diren kalteak, eta horiez gain, aprobetxamenduaren hondarrak (adarrak, puntak, etab.), pista eta areketan uztea.

#### 5. ESLEIPEN-PROZEDURA

Enkantearen izapidea arrunta izanen da, kartazal itxietan aurkeztutako eskaintzen bidez.

Lizitatuzaileek bere eskaintzak aurkeztu beharko dituzte Etxalarko udaleko Erregistro Orokorrean, iragarritako eguna eta ordurako.

Proposamenak bi kartazaletan aurkeztuko dira, itxita egon beharko dute eta lizitatuzaileek sinatuta; honako izen eta agiriak aurkeztuko dira:

##### 1 zk.dun kartazala: "Dokumentazio administratiboa"

1- Lizitatuzailea pertsona fisikoa bada, N.A.N. Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, eratze-eskritura Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik.

2- Ordezkapenik bada, ahalorde askietsia; lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon beharko da.

3- Lizitatuzailearen adierazpena, edo, hala bada, haren ahaldunaren edo ordezkariarena, non adieraziko den, hitzen ardura bere gain hartuz, ez enpresa ezta bere administrariak ere ez daudela kontratazio galarazpenen barrenean.

4- Enpresaren sailkapen agiria edo kaudimen ekonomiko-finantzeroa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko agiriak.

5- Behin-behineko fidantza gisa, hasierako prezioaren %2 jarri izanaren ordezkagiria.

6- Zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ordainagiria.

- Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria eta beste administrazio publikoena, lizitatuzaileak haiekin zerga-betebeharrak badu, frogatzen duena horiek eguneratuak dituela. Ezin da 6 hilabete baino lehenago egindakoa izan.

- Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, berarekiko betebeharrak eguneratuak dituela adierazten duena. Agiria baliodun izateko ezin da 6 hilabete baino lehenago egindakoa izan.

7- Lizitatuzailearen adierazpena, edo, hala bada, haren ahaldunaren edo ordezkariarena, non adieraziko den, hitzen gaineko erantzukizuna bere gain hartuz, seguritatearen, laneko osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren inguruan indarra duten xedapenak ezarritako eginbeharrak betetzen dituela.

8- Kontratuarekin modu zuzenean edo ez zuzenean sortu litezkeen aferak direla eta, enpresa atzeritarrek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non adieraziko den, edonolako epaitegi eta auzitegi espainiarren men geratzen dela, eta lizitatuzaileari legokiokoen atzerriko jurisdikzio-barrutiari uko egiten diola.

Hala ere, dokumentazioa hasieran aurkeztu ordez lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpena aurkez dezake, kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela dioena. Halakoetan, esleipen proposamena suertatzen zaion lizitatzailleak zazpi eguneko epea izanen du, esleipena jakinarazten diotenetik, eskatzen diren agiriak badituela eta baliozkoak direla frogatzeko. Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, kontratua suntsiaraziko da, esleitzailari entzun ondoren, eta lizitaziorako jarritako bermeak kenduko zaizkio.

## 2 zk.dun kartazala: "Proposamen ekonomikoa"

Proposamen ekonomikoa plegu honetako I. eranskinean adierazten denaren arabera aurkeztuko da. Proposamen bakarra eginen da eta, betiere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo izanen da.

Aipatutako dokumentazio guztia orijinal edo kopia konpultsatu bidez aurkeztuko da, notarioak edo Administrazio eskudunak eginda.

## **6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Kontratazio Mahaia honela osatuko da:

- Lehendakaria: Etxalarko alkatea.
- Batzordekideak: Etxalarko udaleko bi zinegotzi.
- Mahaiko idazkaria: udaleko idazkaria.

Kontratazio Mahaia enkantea egin aurretik eratuko da.

## **7- ENKANTEA EGITEA**

Enkantea eginen da, jendaurrean, horretarako argitaratuko den iragarkian adierazitako eguna eta orduan.

Behin behineko esleipena eginen da ekonomikoki eskaintzarik hoberenaren alde.

Bi edo eskaintza gehiago berdinak badira, eskaintzak egin dituzten artean ahozko lizitazioa irekiko da.

## **8- ENKANTEA HUTSIK**

Enkantera ez bada inor aurkezten, edo aurkeztutako eskaintzak ez badute betetzen kontratua esleitzeko baldintza-pleguan ezarritakoa, enkantea hutsik geldituko da eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 166 eta 143 artikuluetan ezarritakoaren arabera jokatu ahalko da, baita Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 210 eta ondoko artikuluetan ere (280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsia).

Kasu horretan, esleipena eta ustiapena baldintza tekniko eta baldintza ekonomikoen pleguetan oinarrituko dira, lizitazioaren prezioa ezik; hori kasuaren araberakoa izanen da.

## **9- SESTEOA**

Aprobetxamendua behin behinekoa izanen da eskaintzarik hobereana egiten duen lizitatzaillearen alde. Behin behinean eginiko eskaintza hori hobetu ahal izanen da zenbateko horren seiren bat igoz gero, gutxienez. Sestea oinarrituko da Toki Administrazioari Foru Legearen 231 artikulua ezarritako arauetan.

## **10- GASTUAK**

Aprobetxamenduaren behin betiko esleipendunaren gainean geratuko dira enkantearen iragarpenek sortutako gastuak, bai egunkarietan, bai bertze edozein hedabideetan. Halaber, esleipendunak ordaindu beharko du Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera.

## **11. BERMEA AURKEZTEA**

Esleipendunak, lanak hasi aurretik, baso-lotearen balioaren % 50eko abala aurkeztu beharko du.

## **12. BASO-APROBETXAMENDUAREN ORDAINKETA**

Ordainketak honako egutegiaren arabera egingen da, betiere epeak gehienezkoak direla ulertzen delakoan:

Ordainketak – Epeak:

- Behin betiko fidantza, bermea eta gastuak: behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso eta handik hamar egunera.
- %30 (BEZ barne): behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso eta handik hilabetera.
- %50 (BEZ barne): 2021eko abenduaren 31a baino lehen.
- Gainerako %20 (BEZ barne): lotea ateratzeaz bukatzean.

Ordainketa eskudirutan, bankuko transferentzia edo banku-txekea edo bankuak bermatuko txekearen bidez egin ahalko da. Azken kasu honetan, txekea nahitaez izendun eta gurutzatua izanen da, Etxalarko udalaren izenean.

## **13. EGIN GABEKO ORDAINKEAK**

Basozainak uste badu ustiapena behar baino azkarrago egiten ari dela, edota materiala bereizten ari bada, eta horrek itxura ematen badu mendiaren baliorik handiena hortik aterako dela ordainketa guztiak oraindik egin gabe daudenean, udalak erabaki ahal izanen du, Alkatearen bidez, egin gabeko ordainketak epe-mugaratzea; ordainketak ez badira gauzatzen, menditik atera gabe dagoena konfiskatu ahal izanen da.

Esleipendunak ustiapena bukatzen badu baldintza pleguan ezarritako epea baino lehen, aprobetxamenduen ordainketa aurreratu beharko du.

## **14. LUZAPENA**

Ustiapena burutzeko epea bukatu aitzinetik, esleipendunak eskatu ahal izanen dio udalari luzapen bakarra; luzapen hori izanen da ustiapen-eparen laurdena, erdia edo berdina. Luzapen hori eman du, behar bada, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak; baimenaren aurretik ordaindu beharko da, udaleko diru-zaintzan, aprobetxamenduaren esleipen-prezioaren %5, %10 edo %20, hurrenez hurren.

Luzapen eskaerarik ez da bideratuko udalaren aldetik lehenik ez bada ziurtatzen luzapen horri dagokion ordainketa egin dela (%5, %10 edo %20).

Betiere, udalak beretzat gordetzen du ezezko txostena emateko edo esleipendunak eskatutako epearen zabaltzeari ezetz errateko ahalmena, komenigarria ikusten badu baso-aprobetxamendu lanentzako.

## **15. BERANDUTZA-KORRITUAK**

Esleipendunak aurreratu ahal izanen du ezarritako epeen ordainketak, baino inoiz ez atzeratu ez bada udalak akordioaren bat hartu duela hori baimenduz eta onartuz. Ordainketen inguruan edozein atzerapen bada, udalak eskumena izanen du %10 urteko korritua kobratzeko.

Berandutza-korrituak kontatzen hasiko dira ordainketa egin beharreko egunaren biharamunetik aurrera.

Ordaindu beharreko eperen bat ez ordaindu eta handik hilabetera oraindik ere ez bada ordaindu, Etxalarko udalak eskatu ahal izanen du bai administrazioari premiamendu-bidez, bai exekuzio epaiketa zibilaren bidez; horren inguruan sortzen diren gastu eta gainordain guztiak esleipendunaren gain izanen dira.

## **16. KONTRATATZEKO AHALDUNDUAK**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Kontratu Publikoari buruzko 18 artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 2/1990 Foru Legeko 229 artikuluan adierazitako arazoak direla eta.

Ezinen dute parte hartu Etxalarko udalarekin zorraren bat duten pertsona fisiko zein juridikoak. Inguruabar hori egiaztatuko da Etxalarko idazkari-kontu hartzaileak eginiko agiriaren bidez.

## **17. KALTEAK**

Lotearen esleipendunak egurra ateratzeko eta garraiatzeko erabili dituen bideak lotearen ustiapenaren hasieran zeuden bezala utzi beharko ditu; bideak hondatu baditu, bere gain izanen dira bide horiek behar den bezala konpontzeko lanak.

Horretarako, behin lotearen ustiapena bukatuta, eta horren azken ikuskaritza egin baino lehen, esleipendunak udalari jakinarazi beharko dio ustiapen lanak bukatu direla. Horren ondotik, udalaren aldetik osatutako batzordeak, esleipendunarekin edo honek izendatutako lagunarekin batera, bideak aztertuko ditu ikusteko haien egoera egurra atera eta garraiatu ondoren; emaitzaren arabera, esleipendunari eskatu ahal izanen zaio bideak konpontzea baso-ustiapena hasi zen egunean zeuden egoera berean gelditzearren.

Halaber, ulertzen da esleipendunak hasieran hartzen dituen bide eta pistak egoera onean daudela, ez bada ustiapena hasi baino lehen, idatziz aurkeztu dela Alkatearen aurrean bide eta pista horien inguruko erreklamazioa. Kasu horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, aurkeztutako erreklamazioaren inguruan basozainak txostena egin ondotik.

## **18. ARRISKUA ETA MENTURA**

Esleipendunak arriskua bere gain hartuz jardungo du kontratu hau gauzatzekoan, inongo lehentasunik izan gabe, eta ezin izan da eskatu prezioaren beherapenik, edo kontratua baliogabetzea edo bertan uztea.

## **19. NAFARROAKO GOBERNUAREN BALDINTZAK**

Azaldutako baldintzak eta baldintza teknikoen pleguan ezarritakoak ere, lizitatzailleen aldetik erabat onartutzat hartzen dira, eta horrela adieraziko da eskaintza ekonomikoa egiterakoan.

## **20. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA**

Baldintza plegu honetan agertzen ez den guztian, honako araudia oinarritzat hartuko da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/1018 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamendua, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

## **21. HELEGITEAK**

Udalak ebatziko du kontratu honen exekuzioa edo interpretazioaren inguruko guztia.

Kontratu honen lizitazioarekin lotuta onartzen diren egintzen aurka, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 333. artikuluan aipatzen diren administrazio- eta jurisdikzio- errekurtsoez gain, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritako kontratazio publikoari lotutako erreklamazioa ere jar daiteke, horretantxe agertzen diren baldintzak gertatzen badira.

Alkatea,  
Miguel M<sup>a</sup> Irigoien Sanzberro

## I. ERANSKINA // ANEXO I

### PROPOSAMEN EREDUA 1. LOTEA:

Izen-deiturak: ....., adinez nagusia. Herria: ..... Helbidea: .....  
NAN zenbakia: ..... Egintza honetan nire izenean edo honako entitate honen ordezkari gisa dihardut: ..... (IFZ: .....) Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta egunkarian argitaratu zen oihan enkantea dela-eta, baldintza tekniko eta administratiboetan **1. LOTE**Aren truke (322,06 m<sup>3</sup> zur eta 2.317,97 m<sup>3</sup> egur, **larizio pinua eta alertzea**), **Etxalarko hainbat alderdietan**..... (hitzez eta zenbakiz)..... euro eskaintzen ditut; espresuki men egin eta onartzen ditut ezarritako baldintza teknikoen plegua eta baldintza ekonomiko-administratiboen plegua, horien berri baitut. (Eguna eta izenpea)

### PROPOSAMEN EREDUA 2. LOTEA:

Izen-deiturak: ....., adinez nagusia. Herria: ..... Helbidea: .....  
NAN zenbakia: ..... Egintza honetan nire izenean edo honako entitate honen ordezkari gisa dihardut: ..... (IFZ: .....) Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta egunkarian argitaratu zen oihan enkantea dela-eta, baldintza tekniko eta administratiboetan **2. LOTE**Aren truke (895,42 m<sup>3</sup> zur eta 383,75 m<sup>3</sup> egur, **insignis pinua, Lawson altzifrea, larizio pinua eta alertzea**), **Etxalarko hainbat alderdietan** ..... (hitzez eta zenbakiz)..... euro eskaintzen ditut; espresuki men egin eta onartzen ditut baldintza teknikoen plegua eta baldintza ekonomiko-administratiboen plegua, horien berri baitut. (Eguna eta izenpea)

### PROPOSAMEN EREDUA 3. LOTEA:

Izen-deiturak: ....., adinez nagusia. Herria: ..... Helbidea: .....  
NAN zenbakia: ..... Egintza honetan nire izenean edo honako entitate honen ordezkari gisa dihardut: ..... (IFZ: .....) Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta egunkarian argitaratu zen oihan enkantea dela-eta, baldintza tekniko eta administratiboetan **3. LOTE**Aren truke (2.598,71 m<sup>3</sup> zur eta 1.014,35 m<sup>3</sup> egur, **haritz amerikarra, gaztainondoa, akazia, platanoa, pagoa, lizarra, gerezia, astigarra eta Lawson altzifrea**), **Etxalarko hainbat alderdietan** ..... (hitzez eta zenbakiz)..... euro eskaintzen ditut; espresuki men egin eta onartzen ditut baldintza teknikoen plegua eta baldintza ekonomiko-administratiboen plegua, horien berri baitut. (Eguna eta izenpea)